

**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2021eko apirilaren 28an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

2021 URTEKO KONTRATAZIO PLANAREN ONARPENA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioak ordenamendu juridikora ekartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.4 artikulua xedatzen du sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren jardura programatuko dutela eta aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko aldietan garatuko, eta kontratazioari buruzko beren plana aurrez jakinaraziko dutela aurretiazko informazioaren iragarki baten bitartez. Zehatzago, erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan, “aurretiazko informazioaren iragarkiaren argitalpena” egin ahalko da eta horrela lizitazio epeak murriztu egingo dira.

Udal sail desberdinek emandako informazioa kontutan hartuta, administrazio orokorreko teknikariak Oiartzungo Udalaren 2021 urteko Kontratazio Plana idatzi du. Plan horrek erregulazio harmonizatuari lotutako eta erregulazio horri lotuta ez dauden aurreikusitako kontratuak barneratzen ditu, helburua edo izena, aurreikusitako zenbatekoa, iraupena eta prozedura mota zehatzuz. Plan hau aurreikusten bat da, hau da, ez du behartzen erlazioak barne hartzen dituen kontratu guztiak lizitatzera edo iragarritako baldintza zehatzekin lizitatzera, beraz, ematen dituen datuak gutxi gora beherakoak dira eta ez dira lotesleak.

Beraz, aipatu “Urteko Kontratazio Plana” Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko litzateke, gardentasun printzipioa betez. Horrela, aukera ematen zaie enpresei udalaren kontratu-beharrak aldeztu aurretik ezagutzeko, beren eskaintzak zehaztasun handiagoz prestatu ahal ditzaten:

a) Erregulazio harmonizatuko kontratuak dira:

	Helburua	Mota	Balio estimatua (aurreikuspena BEZa gabe)	Iraupena	Prozedura Mota
1.	Udal eraikinen garbiketa	Zerbitzua	1.392.038,78.- €	2 urte eta urtez urteko bi luzapen aurreikusten dira	Irekia
2.	Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udal igerileku irekien instalazioaren kudeaketa zerbitzua	Zerbitzua / Emakida	Zehazteke	2 urte eta urtez urteko bi luzapen aurreikusten dira	Irekia

b) Gainerako aurreikusitako kontratuak:

	Helburua	Mota	Balio estimatua (aurreikuspena BEZa gabe)	Iraupena	Prozedura Mota
1.	Oiartzungo udal biltegiaren urbanizazioa hormigonatzeko proiektuko lanak	Obra	71.702,54.- euro	6 aste	Ireki erraztua
2.	Oiartzungo karrika auzoko osentzio-sorondo eta matxillanda herri bideen birgaitze proiektuko lanak	Obra	69.205,51.- euro	4 aste	Ireki erraztua
3.	Oiartzungo rafael pikabea etorbidea 56-58 zenbakidun eraikinean dagoen udal lokala egokitzeko proiektuko lanak	Obra	120.400,42.- euro	4 hilabete	Ireki erraztua
4.	Oiartzungo Elizalde auzoko Santusene eta Elorrondo kaleen asfaltatze proiektuko eta Oiartzungo Elizalde auzoko Elorrondo kalean (Elizalde eskola-kiroldegia) ur zikinen sare berriaren proiektuko lanak	Obra	311.254,28.- euro	2 hilabete eta 3 aste	Ireki erraztua
5.	Oiartzungo udalherriko babesgabezia eta arrisku egoera arina edo ertainean dauden adingabeak eta beraien familiei zuzendutako esku hartze zerbitzuaren kontratazioa.	Zerbitzua	349.093,63.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia
6.	Oiartzungo bidegorrian, txaragain ondoan, kanpoko pixatokiak dituen komun autogarbigarri bat hornitu, muntatu, instalatu eta mantentzeko kontratazioa.	Hornidura	42.400.- euro	Hornidura entrega epea: 7 aste / Mantenu zerbitzua: 2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Ireki erraztua
7.	Oiartzungo altzibar auzoko zenbait kale berrurbanizatzeko proiektuaren- lanak	Obra	1.338.829,74.- euro	12 hilabete	Irekia
8.	Oiartzungo udalerriko hiri, zerbitzu eta industria guneetako eremu publikoetan izurriteak sortzen dituzten animaliak (arratoi, beste karraskari, hiri-intsektu...) zerbitzua	Zerbitzua	23.140,48.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira.	Irekia oso erraztua
9.	Oiartzungo eskola kirola, muiitu eta eskola pilotaren koordinazioa eta herriko kirol eragileentzako kirol aholkularitza zerbitzua	Zerbitzua	158.279,24.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira.	Irekia
10.	Oiartzungo haurrentzako balio anitzeko zerbitzua	Zerbitzua	512.727,28.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira.	Irekia
11.	Bertsolaritzaren bidez oiartzungo gaztetxoan ahozko komunikazioa lantzeko egitasmoa	Zerbitzua	48.000.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira.	Irekia erraztua
12.	Urmendi ikastola rampa	Obra	90.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Ireki erraztua
13.	Makarratzegi kaleko espaloia	Obra	80.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Ireki erraztua
14.	Taxi busaren zerbitzua	Zerbitzua	45.000.- euro /urtean	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira.	Irekia
15.	Hilerriko zerbitzuak (ehorketa -hobitik ateratzea)	Zerbitzua	46.280,99.- euro	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen	Irekia erraztua

				aurreikusten dira.	
16.	Oiartzungo udalaren eta otasa sozietate publikoen kontuen eta legezko prozeduren auditoriaren kontratazioa, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez.	Zerbitzua	46.281.- euro	3 urte eta urtez urteko bi luzapen aurreikusten dira	Ireki erraztua
17.	Udal langileen arrisku psikosozialerako protokoloaren idazketa zerbitzua	Zerbitzua	17.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Ireki erraztua
18.	Udal langileen sexu jazarpenerako protokoloaren idazketa	Zerbitzua	17.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Ireki erraztua
19.	Lan prebentzioa	Zerbitzua	24.600.- euro (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia
20.	Zenbait udal langileen lanerako arropa	Hornidura	17.573,39.- euro (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia
21.	Herri bideak	Obra	150.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Ireki erraztua
22.	Beloaga gazteluaren berritzea iii fasea	Obra	110.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Irekia
23.	Altzibar parkina	Obra	400.000.- euro (BEZa barne)	Zehazteke	Irekia
24.	Gipuzkoako foru kontratazio zentralaren bidez ekipo informatikoen horniduraren – kontratu eratorria	Hornidura	1.500.- euro / urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
25.	Foru kontratazio zentralaren bidez funtzio anitzeko ekipoen eta inprimagailuen horniduraren kontratu eratorria	Hornidura	24.000.- euro /urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
26.	Foru kontratazio zentralaren bidez bulego materialaren hornidurarako kontratu eratorria	Hornidura	10.620,07.- euro / urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
27.	Foru kontratazio zentralaren bidez udaleko eraikinetako jasogailuen mantentze zerbitzuaren kontratu eratorria	Zerbitzua	5.248.- euro / urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
28.	Foru kontratazio zentralaren bidez udaleko ibilgailuen aseguru-zerbitzuaren kontratu eratorria	Zerbitzua	5.905.-euro /urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
29.	Foru kontratazio zentralaren bidez suteen eta instrusioaren aurkako sistemen mantenu zerbitzuaren kontratu eratorria	Zerbitzua	2.820,38.- euro/urtean (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia (Lizitazioa FKZ-ren bidez)
30.	Udaleko mezulari zerbitzua	Zerbitzua	12.000.- euro (BEZa barne)	2 urte eta urtez urteko 2 luzapen aurreikusten dira	Irekia
31.	Oiartzungo jolas parkeen mantenu zerbitzua	Zerbitzua	Zehazteke	Zehazteke	Irekia



Ogasun, Kontu-berezien eta beste gaien Batzordeak 2021/04/21ean egindako bilkuran aztertu du plana eta aldeko diktamena eman dio.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

1. Aurreko lerroetan zehaztu den 2021 urteko Kontratazio Plana onartzea.
2. Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea 2021 urteko Kontratazio Plana.
3. Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratuei dagozkien aldez aurreko iragarkiak, horretarako udal-arloek aurreikusitako beharrezko datuen arabera.

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.